

**ORDENANTZA FISKALA, ZAINZA BEREZIKO ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA  
SAN JOSE UDAL-HILERRIA**

**14. ordenantza**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea udal-hilerrian honako zerbitzu hauek emateak sortzen du, salbu ongintzako kasuetan:

- a) Ehorzketak eta berrehorzketak.
- b) Desehorzketak.
- c) Panteoietako gorpuzkiak kentzea.
- d) Lurreko hilobien, nitxoan eta kolunbarioen emakida.
- e) Nitxoan behin-behineko okupazioa, panteoiak eta kaperak konpondu bitartean.
- f) Hilobi-emakiden titularrak aldatzea.
- g) Errausketak.

Subjektu pasiboa

3. artikulua.- Kasuan kasuko tasa ordaintzera beharturik dago zerbitzua ematea eskatzen duen pertsona natural edo juridiko oro, hura baita subjektu pasiboa.

Tarifen aplikazioa

4. artikulua.- Hilerri honetako beste hilobi batzuetako gorpuzkiak beste nitxo batean ehorztean, tasak hobitik ateratzeagatik eta ehorzketagatik ordaindu beharko dira, salbu gorpuzkiak beste behin atera badituzte hobitik, halako kasuetan ez baita tasarik ordainduko. Gorpuzkiak beste hilerri batetik ekarri badituzte, berriro ere ehorzteagatik bakarrik ordaindu beharko da tasa.

5. artikulua.- Errausketetako errauskak, hilotzenak zein gorpuzkienak, gorpuzkien hobiratzeak izanen balira bezala hartuko dira Ordenantza honen ondorio guztietarako.

6. artikulua.- Hilotzak edo gorpuzkiak okupaturik dauden nitxo eta kolunbarioetan ehorzteko ematen diren lizentziak emakida berriztat hartuko dira, eta IV. epigrafeko tarifei epigrafe horretako 5. puntuan aurreikusitako murriztapena aplikatuko zaie, aurreko emakida edo haren luzapena eman zenetik igaro den urte bakoitzeko.

Gorpuzkiak urritu behar diren kasuetan, gorpuzkiak desehorzteari dagokion tarifa aplikatuko zaio urritze bakoitzari.

7. artikulua.- Hilobien emakiden luzapenetan, eskaera egitean indarra duen tarifa aplikatuko da, Hilerriari buruzko Ordenantzaren 15. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

8. artikulua.- 1) Zerbitzua emateko eskaera zuzenean partikularrek eginez gero, ordainketa Udaleko Diruzaintzan eginen da, zerbitzuaren eskaerari erantsitako autolikidazioarekin bat egin ere.

2) Zerbitzua emateko eskaera hileta-enpresek eginez gero, Udalak hilean behineko likidazioak onetsiko ditu, non enpresa horietako bakoitzak eskatutakoaren ondorioz sortutako tasak jasoko baitira.

3) Hilobi-emakidetan titulartasuna aldatzen bada, aldaketa baimentzeko Ebazpenean likidatuko da tasa, eta Ebazpen horretan ezarritako epean ordainduko da.

Xedapen gehigarriak

9. artikulua.- Ordenantza honetan aurreikusi ez den gai orotan, San Jose udal-hilerria arautzen duen Ordenantza hartuko da arau osagarri gisa.

## TARIFA-ERANSKINA

<b>I. EPIGRAFEA.- EHORZKETAK ETA BERREHORZKETAK:</b>	
- Panteoi eta kaperetan:	67,05 euro
- Nitxoetan	69,15 euro
- Hobietan	202,35 euro
- Gorpuzkiak	54,50 euro

<b>II. EPIGRAFEA.- DESEHORZKETAK:</b>	
- Hilotzak	60,75 euro
- Gorpuzkiak	48,15 euro

<b>III. EPIGRAFEA.- PANTEOIETAKO GORPUZKIAK KENTZEA:</b>	
- Lehen gorpuzkia	60,90 euro
- Hortik gorako gorpuzki bakoitzeko	23,80 euro

<b>IV. EPIGRAFEA.- LURREKO HILOBIEN, NITXOEN ETA KOLUNBARIOEN EMAKIDA:</b>	
<b>1.- Hobiak:</b>	
a) 10 urteko emakida, luzapen bakar batekin:	
- 10 urteko emakida	690,00 euro
- Luzapen bakarra, 10 urtekoa	445,25 euro
b) Haurrendako emakida (10 urte bitarte):	
- 10 urteko emakida:	265,00 euro
- Luzapen bakarra, 10 urtekoa:	265,00 euro
<b>2.- Nitxoak:</b>	
a) 10 urteko emakida, mugarik gabeko luzapenekin:	
- Luzapen bakoitzeko:	323,45 euro
b) 10 urteko emakida, luzapen batekin edo birekin:	
- 10 urteko emakida	412,05 euro
- Luzapen bakoitzeko (10 urtekoa):	323,45 euro
c) Haurrendako nitxoan emakida (10 urte bitarte), luzapen batekin edo birekin:	
- 10 urteko emakida	242,15 euro
- Luzapen bakoitzeko (10 urtekoa)	242,15 euro
<b>3.- Gorpuzkiendako kolunbarioak:</b>	
a) 10 urteko emakida	129,95 euro
b) Luzapen bakarra, 10 urtekoa	129,95 euro
<b>4.- Errautsendako kolunbarioak:</b>	
a) 10 urteko emakida	181,10 euro
b) Luzapen bakarra, 10 urtekoa	129,95 euro
5.- Nitxo edo kolunbarioen emakida berria, baldin eta ehorketa beste zenbait gorpuzki edo errauts-kutxatila dituen hilobi batean egiten bada: 2., 3. eta 4. apartatuetako tarifei % 10eko murriztapena aplikatuko zaie aurreko emakida edo horren luzapena amaitu arte igaro behar duen urte bakoitzeko.	

<b>V. EPIGRAFEA.- NITXOEN BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOA, PANTEOIAK ETA KAPERAK KONPONDU BITARTEAN:</b>	
- Hilabete edo horren zatiki bakoitzeko	6,55 euro

<b>VI. EPIGRAFEA.- HILOBI-EMAKIDEN TITULARRAK ALDATZEA:</b>	
- Titulartasun aldaketa bakoitzeko	99,60 euro

<b>VII. EPIGRAFEA.- ERRAUSKETAK:</b>	
- Hilotz baten errausketatik	247,05 euro
- Gorpuzkien errausketatik	99,50 euro